



Usurbilgo Udala

Esp.zkia: ID.06 / 2019 - 0173

## ALKATEAREN DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA Usurbilgo Udaleko ALKATEAK, 7/1985 legearen 21.1.g) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

### IKUSIRIK

2019ko maiatzaren 30eko 2019-00496 dekretuaren bidez, Usurbilgo udalean lan kargari aurre egiteko operario plaza bitarteko funtzionarioz betetzeko hautaketa prozesua martxan jartzea erabaki zen. Apuntatzeko epea ekainaren 7an amaitu zen.

2019-00540 dekretuaren bidez, onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onartu eta argitaratu zen Udalaren webgunean.

Egon diren erreklamazioak aztertu ondoren.

Eta aipatutako guztia ikusirik honako hau,

### ERABAKI DUT

**LEHENENGOA.-** Onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrenda onartzea. 3. eranskinean dago zerrenda.

**BIGARRENA.-** Azterketa praktiko eta euskara azterketarako behin betiko ordutegia onartzea. 4. eranskinean dago ordutegia.

**HIRUGARRENA.-** Dekretua bera, Onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrenda 3. eranskina eta azterketa praktiko eta euskara azterketarako behin betiko ordutegia 4. eranskina Udalaren webgunean argitaratzea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

### ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatetzaren aurrean.



Usurbilgo Udala

Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

**Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena Alkateak, eta nik, Idazkaria naizen honek, ziurtatua. Usurbilen,**

**ALKATEA**  
**Agurtzane Solaberrieta Mesa**

Nire aurrean  
**IDAZKARIA**  
**Irantzu Arrizabalaga Gainza**